

HARTZAILEAK: LEHEN HEZKUNTZA 5 – 6 mailak

DENBORA: 45 min.

HELBURUAK:

- Bakoitzak egunean sortzen dugun hondakin kopuruaz ohartzea.
- Hondakinen ibilbidea ezagutzea.
- Hondakinak gutxitzearen garrantziaz jabetzea.
- Erabiltzen ditugun produktu guztiak egiteko lehengaiak naturatik hartzen direla ohartzea eta horren ondorioez jabetzea.
- Sailkapen egokia egitearen eta hondakinei tratamendu egokia ematearen garrantziaz sentsibilizatzea.

EDUKIAK:

- Sortzen dugun hondakin kopurua, kontsumoa lurralde azpigaratueta eta garatueta, hondakinen tratamendua, 3 R-ak (murriztu, berrerabili, birziklatu), Gipuzkoako zabortegeien egoera, hondakinen zikloa.

METODOLOGIA:

- Panel eta maketez baliatuz eta galdera-erantzun sistema erabiliz gidoia landuko dugu. Ondoren, taldeka eztabaidatuko dugu zer egin dezakegun hondakinak gutxitzeko. Amaitzeko, aholkuak emango ditugu bakoitzak egin ditzaken gauza sinpleak azpimarratuz.

GIDOIA:

- **Bakoitzak egunean sortzen dugun hondakin kopurua.**

Gaiarekin hasteko, hondakinen eboluzioaren maketa landuko dugu. Hondakinak betidanik sortu izan ditugu, baina gaur egun, bai kopuru aldetik eta bai zabor mota aldetik, oso desberdinak dira. Pertsona bakoitzak egunean sortzen dugun hondakin kopuruaz arituko gara.



JARDUERA: HONDAKINAK

- **Gauza bakoitza bere lekuan.**

Museoan ditugun edukiontziak kontuan hartuta, beraien herrian dituztenen errepassoa egingo dugu, hau da, ea guztiak dauzkaten, hemen ez daukagunik ba al daukaten... Ondoren, edukiontzi bakoitzera zer eta nola bota behar den errepassatuko dugu; hau da, bota behar duguna zikina dagoenean garbitu egin behar dugu, tapak eta kortxoak kendu egin behar ditugu...

- **Edukiontzietara botatzen dugun guztia ez da birziklatzen.**

Etxean zaborra sailkatu ondoren, dagokion ontzira botatzen dugu. Guztietatik, grisetik ezik (hau errefusarena) birziklatzera doa. Grisekoa zabortegira eramaten da eta han zaborrarekin zer egiten den azalduko dugu.

- **3 R-ak.**

Azaldu MURRIZTU – BERRERABILI - BIRZIKLATU kontzeptuak, beraiek ze ohitura dauzkaten, ze berrerabiltzen duten, sailkatzeko ohiturarik ba al duten...

- **Zaborraren tratamendua zabortegietan.**

Zabortegietan zaborrarekin jarraitzen den prozesua ezagutzeko aukera izango dute: zaborrak nola tratatzen diren, sortzen duen gasarekin zer egiten den eta zer egin daitekeen, lixibak non eta nola tratatzen diren, zabortegia itxi ondoren zer gertatuko den...

- **Zabortegien egoera Gipuzkoan.**

Gipuzkoan egon diren zabortegi kontrolatuen berri emango zaie eta hauen eboluzioa zein izan den gaur egungo egoerara iritsi arte ezagutzeko aukera izango dute.

- **Garapen iraunkorraren panelean zaborraren ziklo osoa ikusi.**

Garapen Iraunkorraren panelean materialen (beira, papera eta plastikoa) zikloa landuko dugu aukera zuzenak eta okerrak ezagutzuz eta jarrera iraunkorrerantz bideratuz.

- **Birziklatu ondoren zer?**

Birziklatzera botatzen ditugun hondakinekin zer egiten den ikusi ahal izango dugu bitrina eta paneleko ereduen bidez.